

# Wilhelm von Humboldtten konstituziorako egitasmoak\*

(Wilhelm von Humboldt's plans for the constitution)

Menze, Clemens (†)

Frau Dr. Sigrun Menze – Paul-Gerhardt-Strasse 8.  
D-53332 Bornheim/Walberberg

BIBLID [0212-7016 (2003), 48: 1; 15-31]

---

*Idazlan honen helburua Wilhelm von Humboldt-ek Prusiarako konstituzio politiko baterako zituen planen izakera eta zentzua argitzea da. Plan hauek, lehenik eta behin, bere pentsamendu orokorraren baitan bakarrik uler daitezke zuzenki, bertan ezinezkoa delarik "praktika politikoa" eta "erreflexio humanistikoa" erabat banatzerik. Wilhelm von Humboldt-en plan konstituzionalek, horregatik hain zuzen, iharduera politikoari buruz gogoeta egiteko aukera eta gonbitea luzatzen digute gaur ere.*

*Giltza-Hitzak: Humboldt. Konstituzioa. Gizartea. Askatasuna. Nazioa. Asoziazioa.*

*Este trabajo pretende dar cuenta de la naturaleza y del sentido de los planes que Wilhelm von Humboldt tenía en torno a una constitución política para Prusia. Estos planes, por de pronto, sólo pueden ser comprendidos correctamente en el marco general de su pensamiento que, de hecho, no permite una clara división entre "práctica política" y "reflexión humanística". Los planes constitucionales de Wilhelm von Humboldt, por esto mismo, nos permiten y nos invitan incluso hoy a reflexionar sobre el quehacer político.*

*Palabras Clave: Humboldt. Constitución. Sociedad. Libertad. Nación. Asociación.*

*Ce travail tente de rendre compte de la nature et du sens des plans qu'avait Wilhelm von Humboldt concernant une constitution politique pour la Prusse. Ces plans, pour le moment, peuvent être compris correctement seulement dans le cadre général de sa pensée qui, en fait, ne permet pas une claire division entre "pratique politique" et "réflexion humanistique". Les plans constitutionnels de Wilhelm von Humboldt, pour cela même, nous permettent et nous invitent même aujourd'hui à réfléchir sur le travail politique.*

*Mots Clés: Humboldt. Constitution. Société. Liberté. Nation. Association.*

---

\* Irudia: *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*, Cuerpo A. XVIII. libk., 581 or. Auñamendi Argitaletaria.

\*\* Pello Zabaletak itzulitako artikulua.

Wilhelm von Humboldti 1837an eskaini zion nekrologikan, garai horretan argitaratu gabe egon arren, interesatu askok aspaldi ezagutzen zuen 1819ko otsailaren 4ko Denkschrift über eine lanständische Verfassung für Preußen (Prusiarako konstituzio estatal baterako memoria) goraiatzten zuen Varnhagen von Ense-k; apartekoa omen zen bere zorrotasunagatik, askatasunagatik, eta ez gutxiago bere banaketa irmo eta antolaketa zuzenagatik. Humboldttek, idazten du Varnhagenek, “azal zehatzena eta ederrena ematen dio, sinetsi ere sinetsiko litzateke dena irmo helduta dagoela, baina auziari dagokionez ez du ezer egin, egiteko bat, izpiritu ariketa bat baino ez da izan guztia”<sup>1</sup>. Berari izendaturiko lan bat burutu omen zuen, kemenez eta jakituriaz aurrera eramane omen zuen, baina, azken batean, bere gaitasun ugariak erakusteko aukera bezala ikusi omen zuen bakarrik; aukera hartu bai, baina ondoren ez omen zuen gaia aurrera eramane eta beste zerbaitetara pasatu omen zen.

Varnhagen ez da izan bakarria Humboldten jarduera politiko konstituzionala horrela balioztatzen. Harengan ispilatzen da bere garaikide askoren iritzia, alegia: konstituzioari buruzko Humboldten lanak ahalegin hutsak izan zirela dialektikako bere arte ospetsua erakusteko, gainerakoek erdietsi ez zutena harekin lotu eta harekin bateginik garatzeko, ondoren horrela sortutako irudia axolagabeki albo batera uzteko. Varnhagenek egiten duen izakera deskripzioak Humboldti dagokionez ordudanik sarri esan dena azaltzen du, hau da: ideia nobleak landu zituela, noski, baina ez zuela ezer egin haiek egiaztatze-ko; antzoki moduko zerbait bihurtu zuela politika, eta bere burua, bere borondatez kontra, komentarioak egitera beharturiko ikusle, azkenik, gogoz kontrako eginkizun bat hartzera beharturik gertatu zela. Funtsezko jarrera honek argituko luke, batzutan uste ohi den bezala, zergatik hartu zuen urruntasun kontenplatibo bat eguneroko arazo politikoen aurrean, bere arrakasta eza *in rebus politicis*, bera bigarren mailako politiko soil bezala jartzen duena, egoerak zuzen juzgatzeko gaitasuna, egintzarako kemena eta erabakitzeak ausardia falta zitzaizolarik. Horregatik, esan ohi da, garaiko egoera txarraren aurrean baino bere buruaren aurrean huts egin zuela gehiago. Trebetasun gutxiegi izaki egiazko agintearekin harremanak izateko, azpikeria politikoen joko zirriparratsuen azpian erori zen eta pozik politikaren auzi zail bezain eskergari ihes egiteagatik, errealitatetik urrun zeuden ikerketara makurtu zen, bere ospea ez arrazoketa akzidentalean fortuna politikoen alorrean, baizik munduko hizkuntzen jakiturian eta haren filosofian bilatuz.

Arreta hain handiz zainduriko irudi honen aurrean, politika praktikoaren eta humanismo interesatuaren artean bereizten duen irudi honen aurrean, badaude beste iritzi batzuk, Talleyrand-ena bezalakoak, Humboldt bere garaiko hiru edo lau estatu-gizon aipagarrienen artean jartzen dutenak; edo Boeckh-ena, Periklesen neurriko estatu-gizon bezala goraiatzten baitu; eta halaber bere

---

1. Maximilian Blumenthal, Wilhelm v. Humboldt und Varnhagen v. Ense. Mit einer bisher unbekanntenen Biographie Wilhelm v. Humboldts von Varnhagen, in: Westermanns illustrierte deutsche Monatshefte. Ein Familienbuch für das gesamte geistige Leben der Gegenwart. 96. bol. (1904), 422-436 orr. (Bibliografiaren azken idazketaren kopia 426-436), ik. nire liburua: *Wilhelm von Humboldts Lehre und Bild von Menschen*, Ratingen 1965, 273 or., 4. oharra, aipua, 435.



Wilhem von Humboldt.

anaia Alexander Humboldt berak ere Varnhagenen izakera deskripzioa gaitzesten du, lehen begiratuan harrigarri dirudien egiaztapen bat emanez, alegia: bere anaiak “geroago” –hau da, 1819az geroztik– “irmoki jardun zuela ordezkartzeko konstituzio baten premiaz”, eta gaineratzen du: “Ideia horiek buruan zituela hil zen”<sup>2</sup>. Errazegi beharbada gaitzes daiteke hau bere anaiaren ahalegin bezala, bere anaiaren memoria bestelako argitasun batean jarri nahi zuelako eta saiatzen delako bere garaikide zenbaiten artean eta bereziki herri-iritzian irudi zehatz eta armoniko batean eratzten. Ez da normala, noski, Humboldt, heriotzera eramango zuen gaitzaren azken egunetan hizkuntza malaysiarrekin ari zelarik, konstituzioaren auziekin, bere bizitzan aspaldi itxitako kapitulu batekin, alegia, arduratu izana, eta lan horretan ari zela hil izana.

Nire hitzaldian saiatuko naiz erakusten ezen Humboldttek konstituzio politikoaz zituen komentzimenduak ezin aparta litezkeela kolpe ausart batez bere obra osotik, are gehiago bere pentsamendua menderatzen duten giza-kiaren eta nazioaren izateari eta autodeterminazioari buruzko arazoek beren lekua dutenean eta horren bidez ulertu ere ulertzen direnean. Horregatik hasiko naiz, ezinbestean eskema baten gisan labur, Humboldtten jarduera politiko konstituzionala baino lehen konstituzioari buruz zeukan ideiarekin, ondoren oinarri horren gainean joko dut 1819ko otsailetik urrira bitartean konstituzio bat lantzerako eta azkenik bere bizitzako azken hamarkadetan eragin omen zioten konstituzioari buruzko ideiak ukitu nahi nituzke.

## 1.

Alemanian konstituzioari buruzko autuek oihartzun zabala aurkitzen dute Frantziako Iraultzaren hasieratik filosofo, idazle, aditu eta agintari eta interesatu politikoengan, eta horretan ere ez da salbuespen Wilhelm von Humboldt: oso ongi baitzegoen prestaturik eztabaida horietarako Ernst Ferdinand

2. Briefe von Alexander von Humboldt an Varnhagen von Ense, aus den Jahren 1827-1858. Nebst Auszügen aus Varnhagens Tagebüchern, und Briefen von Varnhagen und Anderen an Humboldt, New York o.J. (1860), 26 (A. v. Humboldt 1837ko azaroaren 7ko gutuna Varnhagen-i).

Klein eta Christian Wilhelm von Dohm-ekin izandako ikasketa pribatuei esker. 1789ko abuztuan Parisen aurkitzen da Campe-kin, eta Asanblada Nasionalean eztabaidak segitzen ditu, herrian zein eragin duen jasotzen du, eta Camperen entusiasmo iraultzailearen aurrean eta baita ere Alemanian iraultza honi buruz zegoen ustearen aurrean guztiz bestelako balioztapen bat ateratzen du; bere egunkarian adierazpen oso jakingarri batzuren bidez argitzen du bere jarrera hori, eta ohar horietatik azaltzen da bere iritziz iraultzaren helburu bidezko eta abstraktuen eta gizaki soilaren egoera konkretuaren arteko lotura zuzena. Hala entzuten du zaintzaile guztiz iraultzaile baten ahotik Hôtel Dieu-n eriei ematen zaien zainketa nabarmenki desberdinei buruzko galderari honoko erantzuna: “Ce ne sont que les personnes non recommandées”<sup>3</sup>. Gisa honetako oharketak eta esperientziak dira berak Forster, Dalberg, Schiller, Gentz, Brinkmann eta beste hainbatekin dituen elkarrizketetan behin eta berriro aipatzen dituenak eta 1791ko abuztuan Gentz-i idatzi eta hilabete gutxi geroago “Berlinischen Monatsschrift-en “Ideen über Verfassung durch die neue französische Constitution veranlasst” titulupean argitaratu zuen gutun batean begien aurrean hartu eta sistematikoki sakontzen duena<sup>4</sup>. Hogeitahiru urteko gaztearen postura hartze goiztiar honek konstituzioari buruzko bere pentsaerarako oinarritzko ikuspegiak gordetzen ditu bere baitan, eta horiei irmo eutsiko die bizitza guztian. Batetik, konstituzioak ezin atera daitezke horretarako sorra den errealitate baten arazoizko oinarri soiletatik. “Estatu-konstituzioak”, azpimarratzen du Humboldt, “ezin txerta daitezke gizakiengan, pujan arbolatan bezala. Denborak eta naturak lurra prestatu ez duten lekuan, loreak zintaz lotzea bezala da. Eguerdiko lehen eguzkiak zimelzen ditu”<sup>5</sup>. Bestetik, beharrezkoa da nazioan bertan askatasunaren heldutasun jakin bat, konstituzio baten zentzua eta egokiera ezagutu eta berdintzen duen unibertsaltasuna elkarren kontra dauden berezitasun lokal eta tenporalak aitortu eta kontutatu hartzen dituenak. Azkenik konstituzioak denboraldi baterako sorkariak dira, eta beren baitan aurrera egiten duen hobekuntza baterako, askatasuna beti gehiago egiaztatzeke oldarra ekarri behar dute.

Funtsezko eskakizun hauek zabaltzea eta jarraitzea eskatzen dute. Baina bere gauzatze propioen hobetzean harrapaturik dagoen estatuak ezin duenez ez nahi ezta agindu ere eskaturiko askatasun hori, bere mekanismoan hautsi egingo baitlitzateke, jokamolde bat bilatu behar du, horrekin erdietsi daiteke-elarik estatuak berez eratu ezin duena. Humboldt guztiz begien aurrean badauka ere estatu-makinaren errealitatea, ez dago ez estatuaren amaiera edo desegitea bultzatzen dutenen artean, ezta ere beren ahaleginak askatasunezko erresuma erabateko baten ametsetan betetzen eta orobat ahitzen dituztenen artean, are gutxiago oraindik status quo bat zementuztatzen saia-

---

3. Cfr. I, 77-85 orr. Frantziako konstituzioari berari dagokionez, cfr. gauzatze-ezintasunari dagokionez, Humboldt Gentz-i 1792ko urtarrilaren 9an egindako gutuna, in: HZ 152 (1935), 56 or., bereziki 58.a eta, kritikari dagokionez, 86.a.

4. Cfr. I, 77-85 orr. Frantziako konstituzioari berari dagokionez, cfr. gauzatze-ezintasunari dagokionez, Humboldt Gentz-i 1792ko urtarrilaren 9an egindako gutuna, in: HZ 152 (1935), 56 or., bereziki 58.a eta, kritikari dagokionez, 86.a.

5. I, 80 or.

tzen direnen artean. Gizakiaren baitan aurkitzen du Humboldték abiapuntua, non oinarritu bere izaera gizakiaren neurriko estatu antolaketa bat bezala. Galdera ez da beretzat zer egin dezakeen gizakiak estatuaren alde, zein egin-kizun bete dezakeen han, baizik zer erakar dezakeen estatuak gizatasunaren prestakuntza eta errepresentaziorako. Iraulteta honetan irekitzen da estatuaren zertze eta eraketa berria. Bere "Ideen zu einem Versuch, die Grenzen der Wirksamkeit des Staates zu bestimmen" lanean, estatuaren helburua hiritarren arauzko askatasunaren segurtatzean ipintzen du Humboldték. Estatuaren egiteko positiboa honetan ikusten du bakarrik, alegia gizakiari bide ematean berriro bere baitara itzultzeko, bere duintasunaz eta begiruneaz konturatzeke eta giza-materiale eta kalkula daitekeen masa bezala tratatua izatea ez gehiago onartzeko. Era horretan mugatzen da prestakuntzari buruzko auzia estatuaren konstituzioari buruzkoarekin, eta Humboldtén partehartzea konstituzioaren auzietan testuinguru honetan oinarritzen da, alegia prestakuntzari buruzko gogoeta eta konstituzioari buruzko eztabaida gero eta bortitzaigo elkarrekin uztartzen baitira.

Konstituzioari buruzko auziak dira Humboldtén arreta behin eta berriro erakartzen dutenak; hala Ipar-Alemaniarara egin zuen bidaietan Lübeckeko eta Hamburgeko konstituzioak, Pariseko bigarren egonaldian Sieyès-en iritziak, baina baita ere Oelsner, Ebel, Schlabrendorf izango ditu kontutan, Erromako garaia amaitzen ari zela, berak Greziako hiri librean hondamendian eta erorketan, Tilstit-eko bakearen ondoren, Prusia geratu zen egoeraren parekoa aurkitzen duenean: Prusiari batasun bat sortuko duen konstituzio baten bidez bakarrik, Athenaren eta Erromaren sintesiaren bidez, gizakia eta hiritarra indibiduo batean sintetizatuz, aurre egin dakiok. Gero, Humboldt 1808ko udazkenean Alemaniara datorrenean, badirudi ez zaizkiola arrotz egiten Stein-en gogoetak, litekeena da Fichtek iradokiriko Altenstein-en oldozketak ezagutzea ere, beronen ondorioztatze zaletasunari atxiki gabe ordea, eta 1809ko otsailaren azkenetan bere zerbitzu garaiaren hasiera bertatik badaki dirudienez zein neurritan hartu behar duen parte Steinek bultzatu dituen eraberriketen alorrean. Bat dator Humboldt Steinekin honek esaten duenean: "Heziketa eta ikastetxeen perfekzioak lagun dezake estatuaren antolaketa-aren eskasiak konpontzen, eta orobat hauek haren erruak gutxitu ditzakete"<sup>6</sup>. Egia da Humboldték prestakuntzari eta hezkuntzari buruz dituen iritziak biziki bestelakoak direla Steinek heziketari buruz dituen iritzi zabar eta zaharren parean; baina muina, alegia gizakia libre egiten duen prestakuntzak eta konstituzioak batak bestearengan eragina dutela, zalantzarik gabeko gauza da bientzat. Ezinbesteko zentzu aldaketa herriaren indarren bultzadaren eta eskakizunaren bidez lortzen da. Stein bera da, gainera, Humboldt Vienako urte lehiatsu eta lanpetuetan behin eta berriro auzi konstituzional eta politikoak eztabaidatzera behartzen duena; hala 1813ko abenduan "Denkschrift über die deutsche Verfassung" aurkeztera bulzatzen du eta ez dio eteten utziko elkarriketa hurrengo urteetan zehar ere. Baina azkenik, luzaz pentsatu eta sarri kritikatu zitzaion zalantzen ondoren 1819ko otsailaren 27an

6. Freiherr vom Stein, Briefe und amtliche Schrifteen, hrsg. von Botzenhart / W. Hubatsch, IX. bol., Stuttgart 1972, 839 or.

arazo konstituzionaletarako ministeritzarako deia onartzen duenean, estatua-  
ren aldetik zenbait ekimen nolahala aurrera eraman eta azkar ahiturikoen  
ondoren azaltzen da egiaz posibilitate zehatz bat aspaldidanik erabakitze-  
ko zeuden konstituzioari buruzko auzietan aurrera egiteko.

## 2.

Garai honetarako dagoeneko Humboldttek eskatzen den konstituzioari buruz iritzi garbiak garatu ditu, askoren itxaropenak kontutan hartzen dituen baina idealismoaren eskakizunei dagokionez errealitatearen zentzua kontutan hartu behar duena. Ez du zalantzarik uzten berak bere burua, Hardenberg-en kontrako jarrera arren, beste ezer baino lehen konstituzioari minotzat daukala, eta konstituzio prusiar baterako zirriborroarekin batera konstituzioari buruzko eztabaida zabal baterako oinarriak ipintzea jotzen duela bere egiteko nagusizat. Eztabaida honetarako abiapuntuak dira 1819ko otsaileko zirriborroa eta honetan oinarriturik 1819ko urriaren 28ko Estatuko Kontseiluko batzorde konstituzionalaren komitearen bigarren bilerrako aurkeztu zuen Eskuliburua beharrezko oinarri eta printzipio konstituzional eta politikoen eta horren inguruan sor litezkeen auzien eztabaidarako. Otsaileko lehen memoria Steinekin bereziki Frankfurten izandako solasaldi sarri eta luzeetatik sortua da eta orobat Steinek jaso eta konstituzioari buruz, beste zenbaiten artean, Schlosser, Vincke, Wangenheim, Altenstein eta Stein berak Humboldti bidalitako materialekiko jarrera eraikitzaile bat. Ezin ikus daiteke hori izendaturiko ministroaren jarrera gisan. Urriko egitasmoak 43 paragrafo hartzen ditu handik kasik hitzez hitz, 14 erabat hitzez hitz eta begien aurrean ditu gainera Steinek otsaileko memoriari egindako oharrak<sup>7</sup>. Humboldten iritzia konstituzioari buruz ez zen aldatu funtsean, 1819ko otsailaren eta urriaren artean, Kotzebue-ren erailketatik Karlsbad-eko akordioetara eta Herdenbergek bere konstituzioa aurkeztu arte gertatu zirenak gertatuarren. Egia da bere eskuliburuan printzipio monarkikoa bortizkiago ateratzen duela, legearen egoera aldatu zelako prentsa askatasuna ezabatzen duela oinarritzko legeen katalogotik, baina orain dagoen egoerarenpean ere ez da aldutzen bere oinarritzko ustetik, zeintzu izan behar duten, alegia, beste era batera azaltzen den egoera batean konstituzio baten ezinbesteko osagaiak. Aldaketak pragmatikoak eta taktikoak dira, bere arauari segitzen diote: "Erabat gauzatu daitekeenaz bakarrik aurkeztu behar da"<sup>8</sup>, eta beren egitekoa da bere egitasmo zabala, argudiotan oinarritzen dena, konstituzio bileretarako oinarritzat batzordean nagusitzea. Horregatik migarri da Humboldtentzat prentsa askatasuna bezalako eskakizun funtsezko bati eta horrekin batera herri iritzia, faktore politiko bezala, uko egin beharra, horren alde

---

7. Cfr. auzi honi buruz: Wilhelm von Humboldt und Karl Freiherr von Stein, Ueber landständische Verfassungen in den Preußischen Staaten. Mit einer Untersuchung, hrsg. von Arndt Schreiber, Heidelberg 1949. Garai honetako Humboldten ekintzei buruzko gainbegiratu bat, ik. Paul R. Sweet, Wilhelm von Humboldt. A Biography, II. bol: 1808-1835. Columbus 1980, 249 or, bereziki 301 or.

8. XVII, 340 or. (Wilhelm von Humboldten 1819ko azaroaren 18ko gutuna Dohna-ri).

beti hain irmo azaldu ondoren. Baina une horretan erdietsi ezinezko jarrera bati tematsu eusteak esan nahiko zukeen, hasiera bertatik egitasmoa alferrik galduko zela. Urratsez urrats saiatu behar da, beraz, lortzen, kolpetik gauzatu ezin daitekeena. Auzia ez da Humboldtentzat konstituzioari buruzko teoria borobil bat, baizik orain segitu behar den eta berari gauzatzeko moduko iruditzen zaiona.

Ikerketa pila guzti honetatik hiru galdera funtsezko hautatu behar dira: hasteko Humboldten arrazoiketa konstituzio baten premia, bestetik konstituzio orotarako kontutuan hartu beharreko irizpide formal ezinbestekoak, eta azkenik konstituzio errepresentatibo baten justifikazioa ordezkari nazional baten aldean.

Konstituzio baten beharra ezin oinarritu daiteke, Humboldten ustez, bereztat baliozko egindako modako zergati zabalduen bidez. Ezin apoia daiteke ez antzinako estatu zaharrek beren pribilegioak berriro itzul zekizkien egiten duten eskakizunaren gainean, ezta ere jatorriz bere zituen eskubideak aitor zekizkien herriak egiten zuen oldarraren gainean. Premia hori ez datza nazioaren ezinukatuzko ahalegin abertzale handietan eta bere adin nagusitasun frogan eta ez da azaltzen inondik ere, beste lekutan hala gertatu dela eta konstituzio baten atzetik ahalegintzen den garaiko izpiritu zalantzian. Interes desberdinengatik une batez lehen lekuan azaltzen diren arrazoi hauek erakusten dute, beren arteko kontrakotasunean bertan, zein apetzakoak eta funtsik gabeak diren. Erregeak behin eta berriro berariaz azpimarraturiko konstituzioaren promesak berak ere ez du balio Humboldtentzat, izan ere hau –hala saiatzen da bera argudiatzen– “ezin” lot daiteke “oraindik irauten duten eta, beraz, berez baliozko diren arriekin”<sup>9</sup>. Erregea bere promesatik libratze honek esan nahi du halaber 1815eko maiatzaren 22ko ediktoan finaturiko konstituzio aurrerakinak ere libre geratzen direla. Konstituzio bat egiteko ezinbesteko arrazoi bat izan behar da; derrigor baitago hori lotua erregearen eskubideen gabetze batekin eta orobat erregearen ekimen askatasunaren mugatze batekin. Horregatik arrazoi bat bakarra egon behar du bere alde dagoena eta hain garbia dena, non haren aurrean erregea bera ere, arrazoizko delako, makurtu behar den. Estatuan parte hartzen duen bakoitzaren barneko komentzimendu irmoan dator zuzenean arrazoi hori, alegia: konstituzio baten xedea dela, argitzen du Humboldtdek, “estatuari, nazioaren indar moral goragokoan eta bere arazoetan parte bizi eta egoki zuzendurikoan, apoio handiago bat, eta horren bidez haren kontserbazioaren berme ziurrago bat kanpoko aldera eta bere barneko garapen aurrerakoi bat ekartzea”<sup>10</sup>. Eskakizun hori erregeak ere aitortu behar du. Estatuarentzako segurtasunaren premia nazioaren indar moralaren sustatze, babeste eta garatzearekin uztartzen du horrek. Estatuak eta nazioak elkarren artean orain arte gertatu den baino indartsuago uztarturik egon behar dute. Eta hau beharrezko da erregearen egiteko alboraezina delako estatua kontserbatzea eta bere garrantziaren pertzepziotik nazioa urrunduz haren hondamendia eki-

9. XII, 233 or.

10. XII, 233 or.

Wilhelm von Humboldt Euskal Herria arakaten, 1801.

Wilhelm von Humboldt investiga en Vasconia, 1801.

Wilhelm von Humboldts untersuchungen im Baskenland, 1801.

ditea. Baldin erregeak horrela jokatzeko ez badu, nazioaren garapena nazioaren arrazoizko izpiritutik askatua izango da, prestakuntza askea bera elbarritua bere aurrerakuntzan, bere nortasunaren kontzientzia hartzea murriztua. Ekidin beharrekoa sustatuko luke, hau da: indarrez zapalduz, mugimendu arradikal bat sortuko luke, egoera osoaren iraulketarekin gorde beharrekoa, hain zuzen ere, kanpora botako lukeena. Horregatik estatuaren eta nazioaren arteko eragina eta hauen partehartzea herriko bizitzan antolatu eta segurtatuko dituen formak garatzeko behar da konstituzio bat. Indar guztiak estatuaren alde jartzeko tentsioan garatu eta eratzen da nazioa. Menpekoa, orain arte agintze estatalaren objektu soila eta bere interes pribatuetan kezkatua, hiritar aske bihurtzen da. Konstituzioa da ibilbide honi norabidea, zentzua eta iraupena ematen dion forma. Nazioaren askatasuna prestakuntzaren bidez egiaztatzea da konstituzioaren azken helburua printzipio monarkikoarekin hertsia-hertsian loturik. Erregearen eskubideak mugatzeak ez du esan nahi ondorengo desegitea, baizik ezinbestean erregeak bere burua mugatzea, nazioaren arrazoizko helburuak sustatuz monarkiaren segurtatzea. Zuhur jokatzeko, beraz, Erregeak, dio Humboldttek, “berrito piztu den eta libertatearen eta askatasunaren bidez eutsi beharreko nazioaren izpiritua”<sup>11</sup> bere jokamoldearen arau gidari bihurtu eta konstituzioa eskatzea aldeztu behar du. Horrela babestuko du estatua hondamenditik eta sortzen du nazioaren prestakuntzan estatuaren eta nazioaren iraupena lotzen dituen monarkia bermatzen duen ezinbesteko euskarri morala.

Helburu honi dagokion konstituzioak, bere formaren determinazio ororen aurretik, lau irizpide formal bete behar ditu funtsean eta bakarka. Errealitate bati lotu behar zaio, lankidetzat bat sortu behar du estatuaren eta nazioaren artean bezala nazioko zatien artean ere, ez ditu eragotzi behar nazioaren garapena eta prestakuntza eta azkenik askatasunaren eta heldutasunaren egiaztatzearen amaibako aurrerakuntzarako irekita egon behar du.

Humboldtentzat puntu erabakiorra, konstituzioaren arrakastaren eta porrotaren gainean erabakitzen duena, errealitatearekin lotzeko moduan datza. “Arau zahar eta zuhurra da”, argitzen du, “zigorrek eta antolakuntzak estatuan lehendik daudenekin lotu behar direla, era horretan, etxeko eta aberriko bezala, lurtean errotu daitezten”<sup>12</sup>. Konstituzioak, beraz, ezin har daitezke edozein lekutatik, baizik nazioko bizitzatik sortu behar dute. Horregatik konstituzio ingelesa, amerikarra, frantsesa eta haiek aldatuz egin diren imitazioak, balio gabeko eredu dira. Konstituzio ingelesa (edozein modutan, Humboldttek berak Londresko hauteskundeetan jendailaren aldetik ikusi eta bere ustez haren ezaugarri ziren gehiegikeriengatik ez oso gomendagarria) bere muinean Prusian gertatu ez den errealitate tradizional batekin lotua dago eta horregatik ezin ekar daitezke Prusiara. Zeri atxiki lehenagotik ezer ez zeukan

---

11. XI, 100 or. Agintariak zuhurtziaz bere eskubideak bere borondatez uzteari buruz duen iritziaz, ik. dagoeneko “Ideen”ean (I, 101 or.) eta herrian duen eraginaren deskripzioa (I, 127 or.).

12. XII, 234 or.



amerikarrak, hasteko, bere errealitate nazionalerako forma bat sortu behar izan zuen. Horregatik hasiera berezi bat finkatzen du, Prusiako egoerarekin derrigor ezin lot daitekeena. Frantziarrak lehenagotik jasotako guztia xahutzen zuen eta horrela zuzenean egoismo gorriaren eta inbiriaren asetzearen asaskatzea zekartzan energia anarkikoak libratzen zituen. Ez dago galdetu ere egin beharrik, konstituzio baten aldetik lurralde baterako gisako ondorioak ez direla desiratzekoak.

Esperientzia eta aipamen hauetan ikusten du Humboldttek bere iritzi propioen egiaztapen irmoa: “Konstituzio orok, baita ehun teoriko soil bezala begiratuta ere”, hala azpimarratzen du, “bere bizi-indarraren mami material bat denboran, zirkunstantzietan, garatzea baino behar ez duen nazio-izaeran aurkitu behar du. Arrazoimenaren eta esperientziaren printzipioen arabera hura oinarritzen saiatzea maila handi batean arriskutsua da, eta hain ziurra den bezala benetan iraunkorrak diren konstituzio guztiak hasiera okerra eta inolako ikerketa zorrotz bat jasango ez lukeen hasiera bat izan dutela, gisa berean da ziurra hasiera bertatik logikoki irmotasuna eta iraupena faltako litzaikeela”<sup>13</sup>. Erakunde guztien eraldaketaz ez da gehiegi fido, gehiago fido da “gaurkoetara, erakunde horiek beren jaiotzetik izan ez duten izpiritua ekartzeko ahalegin irainkorraz”<sup>14</sup>. Herri heziketan, 1808ko oinarritzko gizadiaren hezkuntza eta udal araudi bezala, ikusten du Humboldttek lotune erabakiorrena nondik jo estatu zaharretako gizartetik burgesera. Era horretan berriro heltzen ditu 1819an haustura garaiko Steinen ideak Tilsiteko Bakearen ondoren, azkenik haiei balio zabalago bat emateko. Egiaz Steinen erreforma ekintzek badaukate “idea liberal eta libreagoen muin ugari”, ohartarazten du Humboldttek 1813. urteko hondarretan, “baina izpiritua ez zegoen gauzatua”, eta gainera izpiritu horrekin batera bere forma soila estalki huts bezala bota ere egin da. Eta gaineratzen du: “Ez nukkeen hori sekula egin nahi izango”<sup>15</sup>. Beharrezko dira, orduan, herri heziketa areagotzea bezala ahalik eta lasterren udal arauketaren pentsamendu nagusiak gizarte arauketara aldatzea –ahal izanez gero negu honetan bertan, esaten du urriko zirriborroan<sup>16</sup>–, oinarri zabal honetatik independentziaren, askatasunaren, eta prestakuntzaren alorrera pasatu ahal izateko. Izan ere, garai horretan Steinek antzinako estatuak indarberritzeko nahikoa aurreratutako zeuzkan ahaleginak mesfidantzaz ikusten zituen. “Nire ustez”, idazten du 1819ko otsailaren 5ean, Steini konstituzio zirriborroa bidaltzen dion egunean, “urrutitxo doa, batez ere historikoki”<sup>17</sup>. Historian, historia soil bezala, gaurko egunean eragin bizirik gabe, ez dago arrazoirik batere konstituzio baterako.

13. XI, 99 or.

14. XII, 313 or.

15. Wilhelm und Caroline Humboldt in ihren Briefen, hrsg. von Anna von Sydow, IV. bol., Berlin 1910, 186 or. (1813ko abenduaren 1.eko gutuna).

16. XII, 409 or.

17. Wilhelm und Caroline von Humboldt in ihren Briefen, (15. oharra), VI. bol., Berlin 1913, 463 or.

Herri hezkuntza eta udal arauketa egiazko datuak dira, eta horiek abiarazten dute gizakien lankidetzara, herrizaletasuna eta abertzaletasuna esnatzen dutenak, eta interes pribatuen eta herrikoen arteko amil sarri zabalegia gaindiarazten dute, orobat taldeketa desberdinak bateratasun ideal batera sustatzen ditu eta elkarketaren xamurtasun gero eta handiagoaz halaber elkartuen askatasuna areagotzen du. Horretan arrakasta lortu ahal izateko, prestakuntza baten premia dago, eta prestakuntza honek beren eragin eremu bereziaren barruan, nazioaren eta estatuaren arazo orokorretan parte hartu ahal izateko gauza egingo ditu gizakiak. Gisako prestakuntza batek eragozten du gizakiak, dela utzikieriaz, gurukieriaz edo norberekoikeriaz, nazio eta estatuagatik ez kezkatzea, dela handiekieriaz edo harrokeriaz segituan goitik behera agindu eta gobernatu nahi izatea. Oinarri bat paratzen du herri bizitzarako, forma baten indar animatzaile izan daitekeena, eta horren barruan izpiritu nazional bat gara daiteke. Steinen 1815eko urriaren 10eko memoriatik hartzen du Humboldt konstituzioaren oinarri eta printzipioei buruzko bere aipamenetan nola elkarrekin lotzen diren prestakuntza eta konstituzioa. “Herria adimenerako eta egintzarako heziz bakarrik”, hala gaineratzen du bere gogoetetan, “oinarritu eta biziari daiteke estatuko konstituzio bat, eta hezkuntza horrek sortzen ditu norbanakoaren ekintzari ingurune libre bat eskaintzen dioten erakundeak eta esperientziak biltzeko aukera ematen diotenak; baina beste ezer baino lehen bere gizarteko arazoak zuzentzera daramate, eta horrela oinarria ipintzen dute orokorrekiko maitasunerako sentiberatasuna izateko. Aberriaren maitasunaren lehen haziak etxearekiko atxikimendutik garatzen dira, honek eskaini behar dizkigu puntu kitzikagarriak, horrek bihurtu behar du gure ekintzaren objektu, gure ekintza osotasunera zuzendu baino lehen”<sup>18</sup>. Era horretan lortzen da solidaritatea eta elkarren arteko loturaren sentimena garatzea eta indartzea, gizakia sakrifizioarako prest egotea bere estatuarekin identifikatuz areagotzea, bizitza nazional eta estataleko arauketak, hau da: konstituzio bat sortzea, herriaren bizitza eta egintza oinarritzen dena. Ez da bere kontua egoki dena uneko interesen arabera konpontzea, printzipioz desberdin dena berdintzea, baizik isolatzen den gobernatzearen formalismo txarra gainditzea eta nazioko zatikiak organikoki garatzen den gizartearen batasun biziaren konstituzio eta sustapenean sartzea.

Prestakuntzak eta konstituzioak elkarrekiko lotura bat osatzen dute; prestakuntzak konstituzioaren gainean duen eraginaren bidez eta konstituzioak prestakuntzaren eta herriaren izakeraren gainean duenaren bidez “izakera”<sup>19</sup> bat azaltzen da, esaten du Humboldt, datu situatiboetatik irteera antolaketarekin funtsezkoan eskaintzen duena. Zentzu honetan konstituzioa ere, Humboldt berriaz esaten duen bezala, “herriaren prestakuntza baliapide indartsuenen eta seguruenen artean”<sup>20</sup> dago, eta bere formek ez dute pairatzen “indibidualitatearen garapen naturala ezintzen”<sup>21</sup> duten lokarriak

---

18. XII, 399 or.; Freiherr von Stein, Briefe und Amtliche Schriften, hrsg. von E. Botzenhart / W. Hubatsch, V. bol. Stuttgart 1964, 432 or.

19. XII, 508 or.

20. XII, 508 or.

21. XII, 508 or.

izatea. Baldin berezkotasunerako askatasuna uzten badute bakarrik zabal daiteke nazioa. Ibilbide honen azken bakarra izan daiteke “ezen on orokorra norbanakoaren ezinbesteko baldintza dela, norbanakoak izan behar du, inolako tupustik pentsa ezin daitekeenez, bere berezitasunean aitortua eta begiratu, herritarraren izena ezin da bihurtu izen huts”<sup>22</sup>. Berrito antolatua beharreko, are sortu beharreko hezkuntza batetik lehenbizi eta konstituziotik bigarren sortu nahi du Humboldttek nazioan mugimendu dinamiko bat; mugimendu horretan nazioa bere berezitasunean markatuago azal daiteke eta besteekiko mugatze isolatzailearen ordeztu haiekin lankidetzan irekian gizatasunaren betetasuna eta oparotasuna ager daiteke.

Gisako garapen baten ezin amaitzeari, konstituzio oren behinbehinekotasuna dagokio. Ez dago konstituzio idealik, gauza bakoitza bere leku naturalan litzuzkeena, baizik bakarrik balio dute gizatasun idealaren eta idea konstituzionalen eten eta hurbilketa izan daitezkeen konstituzioak. Postulatu nobleak erretolika ez politiko bezala zimeltzen dira, egiazatu ezin daitezkenen. Konstituzioa beraz beti da derrigor gehiago garatu behar den kontzeptu bat, ezinbestean sustatu behar diren printzipioen eta dauden baldintzen erdian egiaz aldaezina den baina printzipioz halabeharrezko denaren artean kornpromezu bat. Humboldtten ustez, hura da askatasunaren aurrerapenaren isplaztea herriaren kontzientzian, formen adierazpena eta segurtatzea, horietan antolatzen delarik nazioaren bizitza.

Humboldtten uste sendoa da konstituzio errepresentatiboak betetzen dituela, uneko egoeran, ezinbesteko eskakizunak. Bera azaltzen da “printzipio monarkikoarentzat onuragarrien”<sup>23</sup> bezala, eta egokiena estatuaren eta nazioaren segurtasunerako eta garapenerako. Errepresentatiboak, textuinguru honetan, ez du esan nahi ez antzinako estatueta itzultzea ezta ere aurrean dagoenarekin loturarik ez duen elementu berri bat sartzea. Konstituzio errepresentatiboak izendatu behar du erdiko bidea antzinako estatuen eta herriaren ordezkartza soilaren artean, printzipio aristokratikoaren eta demokratikoaren artean. Humboldttek “estatuaren idearen gainean”<sup>24</sup> oinarritzen du, “lehendik errealitatean badagoen herriaren banaketa naturalaren”<sup>25</sup> gainean bermatzen delarik. Gisako estatueta aurkitzen du “estatu biziaren elkarte desberdinen interes zibil propioak... bere egiazko organoa”<sup>26</sup>. Oinarri honetan ez du behar antzinako estatuen gutxiespenak bestelako finkapenik gehiago, erabat anakronikoa baita. Herriaren antolaketa politiko osoari dagokionez, hirugarren estatu ere konstituzioan sartuko da. Nazioko osagai muietako bihurtuko da. Hain zuzen ere beronen lankidetzan eginkorren itxaropen handia jartzen du Humboldttek, bera, izan ere, hain ilustratua ez bada ere, hain da sotila eta arrazoizkoa, eta lurrean errotzen da, dagoenari atxikirik

22. XII, 509 or.

23. XII, 435 or.

24. XII, 434 or.

25. XII, 435 or.

26. XII, 394 or.

dago, eta gainera “goragoko estatuen” parean abertzaletasun nabarmenagoa erakusten du<sup>27</sup>. Konstituzio errepresentatiboak bere bidez arauturiko estatuko atal guztien lankidetzan bizirik gordetzen du, hori ezin hautsizko moduan osotasunarekin loturik dagoen komentzimentua, eta kontzientzia horren irmotzearekin segurtatzen du estatuaren batasuna, eta hau ez da bermatzen, Sieyès-ek Frantziarako ezarri duen bezala, erlazio politiko eta hiritar guztien uniformitatean, baizik “guztien partehartze berdinean konstituzioan”<sup>28</sup>. Iraultza etengabekoen eta ezin asmatuzko moduan noizbehinkakoen lekuan jartzen du aurrerakuntza bat jarraian trinko eraikitzen duena, eta egoeran bapateko iraulketa behartzen ez duena, baizik gizatasunaren egiaztatze-  
ra jotzen duen gizakiaren izakeran bere oinarri ezinahituzkoa daukana.

Humboldt-ek badaki konstituzio-batzordean dagoeneko aurpegiratu zekiokela, ezabatu egiten zituela konstituzio errepresentatibo baten eta ordezkaritza nazional orokor baten arteko mugak, konstituzioari buruzko bere gogoetekin berak aurremaila bat aurkeztzen zuela, “pasabide”<sup>29</sup> bat, orobat irristagarria, ordezkaritza nazional orokor baterako; izan ere, bere ustean, ahotsdun guztiak orobat dira hautagai; konstituzioko organoak zuzenean hautatzen ditu herriak, ez bakarrik dira aholkulari, erabakiak hartzeko ahalmena ere badute. Horregatik defendatzen da gisako paso bati beldur diotenen kontra bezala, hura gauzatzeari konstituzio ororen egiazko azken puntu bezala, “ideal propio”<sup>30</sup> bezala ulertzen dutenen kontra ere, eta hartaz ordezkartzeko konstituzio errepresentatiboaren eta orokorraren arteko aldea garbi markatu behar du. Ordezkaritza nazional orokor batek ez du aurkitzen, Humboldt-ek ustetan, inolako bermerik herrian. Ezin sor daiteke nazioaren bizitzatik, nazioaren aldiko errealitate bereziak bezala indibiduoaren berezitasuna ez baititu kontutan hartu behar. Izan ere, “nazio osoaren gainean, masa bat bezala”<sup>31</sup> harturik oinarritzen baita, norbanakoak “osoaren zati”<sup>32</sup> bezala baino ez ditu ikusten, zenbakizko batasun soil bezala ezagutzen ditu, inola berezi gabe bizileku-eremuen (barruti) arabera pilatzen ditu, beren eskubide politikoak diru-kopuruaren menpe<sup>33</sup> dauzka jarrita. Era horretan zerbait artifizialaren gainean, edozein unetan alda daitekeen zerbaiten gainean oinarritzen den mekanismo bat instituzionaltzen du eta honek bere ezinbesteko prozedura modu berdintzaile batekin naturaz ezberdin zena berdintasun eskala mekaniko baten menpean jartzen du. Gisa horretan bakanduriko gizakiak hauteskunde unean bere ahotsa emanez osotasunaren gainean eragina izan dezake, eta minez sentitzen du amil alienatzaile bat hautatuaren, agintzaile berri bezala, eta bere buruaren artean, bere auzi orokorrean ere, pasibotasunera kondentaturiko bezala.

---

27. Cfr. XII, 444 or.; ik. Orobat XII, 234 or.

28. XII, 285 or.

29. XII, 435 or.

30. XII, 435 or.

31. XII, 435 or.

32. XII, 435 or.

33. Ik. XII, 435 or. (Neurri honen arazoei buruz, cfr. XII, 536 or.).

Ordezkaritza orokorreko konsituzioek ez daramate hartaz, beraiek ordezkatu uste dutena ordezkariengana. Baliozkotasun egiazkoa, segurtasuna eta iraunkortasuna ematen dien baliozkotasun politikoa ez dagokie; izan ere hau, egiaztatzen du Humboldttek, sortzen da bakarrik “indibidualitatetik eta” beraiek datozen “estatuko eskubide politikoetatik”<sup>34</sup>. Konstituzioak, hartaz, Humboldtten ustez, “zerbait hila eta arrakastarik gabea dira joera politiko eta izakerarako”<sup>35</sup>. Azken batean diruan, neurri guztietan eskasenean, oinarritzen dira, ondorioz berdintasun idea ez natural baten eraketa dira eta horrela norberaren erabakiarekin batera partehartze eta ordezkatzeko forma egiazko guztiak galtzen dira. Berariaz hiriko bizitzako harreman anitzak albora uzten dituzte; haietan individuoak ez dira kontrajarrita daukaten masa baten zati, baizik “zatiaren zati”<sup>36</sup>, eta era horretan ez dute onartzen gizakiaren egoera osoa, bere lotura gizartean, bere egintzak, bere industriak, bere jabegoa. Nazioa berez estatutan zatituta egoteak eragozten du funtsean bakoitzaren halabeharrezko irizpidea absolutu bihurtzea. Estatuak osatzen dute, hartaz, egiazko ordezkari sistema bakarra, eta honek izan behar du, liluramendu guztien aldean, herri ordezkari soil (eta honek esan nahi du, Humboldtentzat, erlazio natural guztietatik libre), abstraktuaren bidez, “konstituzio ona, zuhurra, nazioaren premiei eta garaiaren eskakizunei erantzuten diena”<sup>37</sup>.

Ordezkaritza orokorreko konstituzioak, Humboldtentzat, gehiegizkoen artekoak dira, Prusian ipini ezinezkoak eta funtsean eztabaida guztietatik kanpo geratzen dira. Bere zirriborroetan muga altuegia jartzen du, hortik ordezkari orokorreko konstituzio batera pasoa egin ahal izateko. Hori da konstituziorako batzordeari eska diezaiokeen gehiena, baldin hasiera bertatik bere eskaintzen eztabaidari uko egin nahi ez badio. Ez da halabeharrez baldin Humboldtten formulatze askok hainbat konstatazio erabakior huts ematen badu, Stein-i mailegaturiko kontzeptuen artean bestelako esanahiak ezkutatzen dituzte, ulerkera askotarako jokoa ematen dute eta urrun daramaten kontsiderazioak irekitzen dituzte. Schuckmann-ek segituan igertzen ditu zehaztasun faltak, eta asti faltagatik inolako ikerketa sakonik egin gabe galdera pila egiten du, halere bere funtsezko erreparoa eta susmoak eta argitasun eskakizunak urretik ere ahitu gabe.

Konstituziorako batzordea ez zen gehiago itzuli Humboldtten gogoeten eztabaida sakon batera. Batzordeak urriaren 28an bigarren bilkura egin baino lehenxeago, oraindik hiru hilabete ez daramatzalarik bere zerbitzuan, Humboldttek bere zirriborroa bazkideei erakusten dienean, erabakia hartuta dago bere politikari buruz indar erabakitzaileen artean. Bere kanporatzea (Humboldttek zerbitzutik urruntzea deitzen du) azaltzen da azkenean, bi hilabete geroago, barneko eta kanpoko politikan zailtzat jotzen den egoera horre-

34. XII, 435 or.

35. XII, 417 or.

36. XII, 435 or.

37. XII, 436 or.

tan, konstituzioari buruzko liskarrean bakea ekarriko duen ondorio eraginkor bakar bezala. Konstituzioari dagokionez erregearen eta gorteko partiduaren ikuspegi eszeptikotik, baita beste ikuspuntutik ere, helburu hori erdietsita dago.

### 3.

Humboldten irteerak eskena politikotik ez du esan nahi konstituzioari buruzko auzietan bere interesa amaitu denik. Konstituzioen printzipioari buruzko galderek mugituko dute, aukera azaltzen denean, jarrera zehatza hartzera. Horrek erakusten du printzipio monarkikoan irmo segitzen duela eta nazioaren bizitza etengabe garatuko duten formak sortuko dituen konstituzio baten alde dagoela. Eszeptizismo subliminalik gabe ez bada ere, ezer baino lehen programa osotik apartatu eta egiaztatu beharreko estatu probintzialen, bere ustez, zentzurik gabe faboretzatzearen bidez sortua, irmo eusten dio maila guztietan estatuen bere ideari, horrela azpijoko demagogikoen susmagarri bihurtzen bada ere. Bere komentzimenda hasten da aldatzen Hardenberg-en ondoregoari buruzko eztabaidarekin. Voß hil ondoren eta Witzleben-ek Humboldt estatuko ministrotarako proposatzen duenean, Wittgenstein-ek, erregeak iradokirik, ebazpen bat ematen du, erregearen zantzak Humboldten salaketa moral eta politiko batean amaituz. Estatuko administraritzako gailurrera deituak, azaltzen du Wittgensteinek, “ezinbestean izan beharko luke, erregeren itxaropen zuzenak ez engainatzeko, komentzimenduz, sistema solidario politikoaren eta izakera korporatiboaren adiskide, jarraitzaile eta defendatzaile, baina biak erregearen zentzuan eta haren borondate zehatz eta agerikoaren arabera”<sup>38</sup>. Horrek esan nahi du Wittgensteinen iritziz: “Bi puntu hauen inguruan dabil gaur gure existentzia politikoa, haietatik ihes egiten bada, orientabiderik gabe eta euskarririk gabe geratzen gara amil baten ertzean”<sup>39</sup>. Wittgenstein-ek hain erabakitsuki adierazitako iritziaren arabera, Humboldtek ez ditu betetzen eskakizun horiek. Ikuspegi erlijioso, politiko eta moraletik printzipiorik eta begirunerik gabea, printzipio monarkikoari dagokionez eszeptiko, konstituzioari buruzko modako ideiei atxikia, goitik behera bezala behetik gora iraultzeari gehiegi emana, gezurtien azpijokoei bezala harrokeriaren iradokizunei ere erdiesgarria, ezinbesteko eskakizun haiei kontra egingo lieke Humboldtek, itunkideen politikaren kontra jardungo, saiaturiko litzateke estatu-izakera probintzialaren “ordez erresumako estatu orokorra jartzen gaurko modaren arabera”<sup>40</sup> eta horren bidez inolaz ez laguntza, baizik izugarrizko arriskua eratuko luke estatuaren-

---

38. Wilhelm von Sayn-Wittgenstein-Hohenstein printzearen memoria, 1823ko martxoaren 22koa Prusiako erregeari (Rep. Wittgenstein V, 1, 9, GStPK, 60. orria, aurreko aldea). Cfr. memoria honi buruzko erreferentziak, Hans Braning, Die oberste Staatsverfassung in Preußen zur Zeit des Todes von Hardenberg, In: Jahrbuch für die Geschichte Mittel- und Ostdeutschlands 13/14 (1965), 196 or.; gainera: Id. Fürst Wittgenstein (Veröffentlichungen aus den Archiven Preuss. Kulturbesitz, 17) Köln 1981, 141 or.

39. Id. 60 aurreko/atzeko aldeak.

40. Id. 60 atzeko aldea/61 aurrekoa.

tzat. Baldin, beraz, administraritzaren gailurrean jarria izango balitz “nik”, argitzen du Wittgenstein-ek, nire buruari galdetzen diot, zer gertatuko litzateke gurekin?”<sup>41</sup>. Har litezte gisako iritziak eta gaitzespenak hasteko, daudenean hartuta, salaketa zabar bezala, gutxienez mugarik gabeko gehiegikeria gaizto bezala –ez baitago zalantzarik Humboldtkek ez zuela pentsatzen ez printzipio monarkikoaren deseginketan ezta konstituzio frantsesaren antzeko konstituzio batean–, halere estatuei buruz Humboldtkek bere iritzia aldatu izan behar zuen. Stein-i 1823ko apirilaren 4ean idatzi zion gutun batean –eta badu gutun honek zerikusirik Wittgenstein-en promemoriaz–, Humboldtkek zenbait zalantza azaltzen du ea estatuak oraindik garairi zegozkien forma ote ziren.

Estatuek, hala adierazten du Humboldtkek, bere egitekoa betetzen dute, baldin badagoena berriarekin uztartu badezakete. Horretarako ez dira gai ez eliza ezta nekazarien estatua eta noblezia ere, bata bestearengan trabatu eta estatuaren eta lurraren artean ezabatzen bitituzte. Garapen hau ez dator oker emandako legeengatik, ezta ere izakera iraultzailetik, hazten joaten da nazio bakoitzaren gaindi indarrez bide egiten duen ekintza industrial eta komertzial batetik, itxuraz natural diren hesiturak hausten ditu, gizakiengan duen bere erreakzioan ikuspegiak libreago egiten ditu, zailago berriz jasoriko formatan biltzea, baldin hori inolaz posible bada. Erdiko estatu bat eratzen da, hiritarren estatuarekin orobat egiteko eta ekintza industrial guztiak hartzen dituen. Ez dago munduan indarririk bizitza indibidualaren dinamika hau jasotako karriletara berriro behartuko duenik, ez bada, den horren desegitearekin batera etorkizuneko bizitzaren oinarria ere hiltzen ez badu. Estatuak estatu izateari utzi diotenez, orduan estaturen bilerak ezinezkoak baitira, derrigorrezko da, argudiatzen du Humboldtkek, bitarteko paso batean elkar ulertzea, “ez hain zuzen lehen zena eraikitzea, baizik orain dena, zuzenbidean eta justizian loturiko forma batean, geroagoko hobekuntzekiko gogor kontrajartzen ez den gisako batean bakarrik hustutzea”<sup>42</sup>. Horregatik estatuak ezin dute izan luzarago konstituzioaren muina. Humboldtkek jada 1819ko urriko egitasmoan ordezkaritza estatuzkoaren eta orokorraren artean ikusi zuen maila gaindiezinezkoa ez da gehiago erabateko oztopo. Maila hori geroagoko hobekuntzaren kariatz ordezkaritza orokorraren bidean ikusi daiteke. 1831ean ikusten du Humboldtkek, eginez 1808ko hiri antolakuntzara atzera joz, hiritarren asanbleatan, bereizkuntzarik gabe, abertzaletasunaren indartzea, bizitzak garai horretan eskaintzen duena politikoki egiaztatuz. Litekeena da Humboldt, horretan, Sieyès-ekin 1798an izandako elkarrizketa batekin gogoratzen dela; honek garai horretan uste zuen “erregeek beraiek oraindik ordezkaritza sistema sartu eta beteko dutela, gainera hor beren lekua gorde ahal izango dutela”<sup>43</sup>, eta uste du Sieyès-engan gauza “osasuntsu eta on”<sup>44</sup> asko aurkitu dituela. Horrela, bada, Alexander bere anaiaaren oharra,

41. Id. 61 aurreko aldea.

42. XVII, 363 or.

43. XIV, 409 or.

44. XIV, 421 or.

Wilhelm von Humboldt Euskal Herria arakatzen, 1801.

Wilhelm von Humboldt investiga en Vasconia, 1801.

Wilhelm von Humboldts untersuchungen im Baskenland, 1801.

Varnhagen-i dagokionez, ez da oso zaila sinesten. Askoz gehiago, badirudi Humboldt beranduenik 1823az geroztik konstituzio orokor baten idearekin bere bizitzako azken egunetaraino saiatu zela.

Konstituzio hori aurkitzen da, halaber, bere irakatsiaren ondorioetan, ez baitago hor inolako etenik politikaren eta prestakuntzaren artean. Gizakiak, hala dago komentaturik Humboldt, prestakuntzaren bitartez bakarrik hobetu dezake bere egoera. Frantziako Iraultza, bere ustez, diagnosi zuzen baten ondorio ustela da. Bere ahalegin terapeutikoak garaiaren akatsa ispliatzen du era bereziki nabarmen batean, eta indartu egiten du azokan saltzen diren hitzekin berak behin betirako erauzi nahi zukeen menpekoen burubidea. Egoera hobetzearen aurretik pentsamoldea irauliko zuen prestakuntza batek joan behar zuen; prestakuntza horrek aspaldiko garaietan galdutako okerreko bideak, ustezko estatu eskakizunak, absolutismo zaharkituak urratsez urrats bazterreratu ditu eta askatasunaren hesitura finko guztiak gainditzen ditu. Prestakuntza horrek desegiten ditu askatasunaren kontra jartzen diren oztopo ez natural guztiak. Gizaki guztiak, alde batera utzita beren jatorria eta beren klasea, batzen dituen kontzientzia hartze honetan, konstituzioek ere aurrerapenarekin askatasunaren kontzientzian bat egin behar dute. Gogoeta hauetatik Humboldten pentsamenduak eraman behar du konstituzio orokor batera, eta honek amaibako bide batean zehar ontasun orokorraren eskakizunak norbanakoak bere burua prestatzeko daukan betebeharrarekin gero eta gehiago elkartuko ditu, eta oraindik aurreratu ezin daitezkeen bizitza nazional eta estatal formak eskatzen ditu, horretan estatuen araberako inolako bereizkuntzarik ez delarik gehiago gertatuko. 1813ko abenduaren 13an dagoeneko Carolineri idatzia zeukion: “Bi potentzia on eta mesedegarri daude bakarrik munduan: Jainkoa eta herria. Erdian dagoenak ez du deus balio, eta guk geuk herriarengandik hurbil gauden neurrian”<sup>45</sup>. Estatuaren batasuna beretzat “ez da makina baten dinamika, eta ez sistema baten paperezkoa”, aldiz dago “herriaren izpirituan eta bihotzean”<sup>46</sup>. Hannah Arendtek Humboldt egiazko demokrata aleman gutxietako bat dela esan du<sup>47</sup>. Gisako kalifikazio bat bera liberalismoaren azpian jarri nahi zuena baino bortizkiago ukatuko zukeen. Gneisenau-k<sup>48</sup> bezala, pentsamendua biltegian iste oro ukatzen duen norabide propio bat beretzat eta beste oso gutxi batzuren tzat bakarrik eskatuko zukeen berak.

Humboldten konstituzio egitasmoen gainetik pasatu da historia. Baina esan al daiteke horregatik huts egin duela, oroitzapen lauso bat baino utzi ez duelako, konstituzioaren historian edozein modutan bide zuzenetik aparta-

---

45. Wilhelm und Caroline von Humboldt in ihren Briefen, (15. oharra), IV. bol., Berlin 1910, 195 or.

46. XII, 507 or.

47. Cfr. Hannah Arendt, *Elemente und Ursprünge totalitärer Herrschaft*, Frankfurt a. M. 1955, 15 or.

48. Cfr. honi buruz: *Das Leben des Feldmarschalls Grafen Neithardt von Gneisenau*, 5. bol. Hans Delbrück-ena, obra beraren jarraipena G.H. Pertz-ena, Berlin 1880, 579 or. (1819ko urriaren 22ko gutuna Luise printzesari, Radziwill printzesa).



tzen den arabesko bat aurkezten duelako? Egiaz Humboldtek huts egin du arrakasta eta porrot agerikoen arabera neurtzen duenaren ustetan, huts egi-tea eraginkortasun politiko zuzenaren bapateko azkenarekin berdintzen bada. Bere gogoetak eta ideak bazterturik geratu al dira horregatik bera bezala, haiekin loturik zeuden itxaropenak ohoratu ez zirelako? Aurrera jotzen duen pentsamendua, unera zuzenduriko itzulika ibiltze baten aldean, atzeraka jotzen duen euskarri bilatze baten aldean, atxikimendu baten aldean nahimen laguntzailerik gabe ezarri ezin daitekeena, bere muinean ez dago desegina. Prestakuntzarekiko duten loturari dagokionez ordezkartzazko konstituzioak zaharkituriko forma bezala baztertzen ditu eta alienazioa zapaltzen, nazioaren izpiritu berezkoa sustatzen, gizakiak, gizaki direnez, beren duintasunean aitor-tzen dituen antolakuntza egokiak bilatzen ditu. Oldar honek –hala uste du sendo Humboldtek– iraun egingo du, indar berria irabaziko eta bere iraupena-rekin nazioan norbanakoengan eragin noblezaillea izango du eta konstituzio liberal baten eramale bihurtuko ditu, haren gauzatzean jarrita dauden muga guztiak gaitutuko dituelarik; izan ere, han jarritako askatasunik handiena bera ere beste handiago batez gaitutuko daiteke. Hala beraz, Humboldten gaine-an ospaturiko garaipenak arrakastaren unean bertan dagoeneko etorkizuneko porrotaren hazia dakar berarekin.

Wilhelm von Humboldt Euskal Herria arakatzen, 1801.

Wilhelm von Humboldt investiga en Vasconia, 1801.

Wilhelm von Humboldts untersuchungen im Baskenland, 1801.